

TITULARTASUNA ALDATZEKO ESKABIDEA	
Zer da? Zertan datza?	Amarraleku baten titulartasuna aldatzeko eskabide-idazki bat entregatzean datza, plaza baimenduta duen ontzi berarekin.
Nork eska dezake?	Indarrean dagoen amarralekuaren titularrak edo legezko ordezkariak, behar bezala egiaztatua, edo, hura hilda badago, amarralekua okupatzen duen ontzi baimenduaren onuraduna den edozein pertsonak, 2017ko urriaren 19ko Amarralekuen Aginduaren 20.2 artikuluan ezarritakoaren arabera (bigarren mailarainoko odolkidetasuna).
Aurkeztu beharreko dokumentazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Titulartasuna aldatzeko eskabide-idazkia, hauek sinatuta:           <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dohaintzaren emaileak(ek) eta dohaintzaren hartzaileak(ek), dohaintza bada, edo onuradunak, mortis causa eskualdatzea gertatzen bada, edo</li> <li>- Ontziaren titularkide guztiek, kasu hauetan:               <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ partaidetza-ehunekoaren aldatetarako, eskabidean partaidetza berriak adierazita, edo</li> <li>▪ alde guztiek adostutako emakidaren titulartasunaren aldatetarako, partaidetza berdina izanez gero.</li> </ul> </li> </ul> </li> <li>• Mortis causa dohaintza edo eskualdaketa (herentziaren onarpena) edo ontziaren titulartasunean partaidetza-aldaketa egiaztatzen duen agiri ofiziala.</li> <li>• Titulartasuna aldatzea eskatu den pertsonaren NANA.</li> <li>• Ontziaren idazpen-orria, ontziaren titular gisa titulartasuna zein pertsonaren alde aldatzeko eskatzen den adierazita.</li> <li>• Titulartasun-aldaketa eskabidearen onuradunak ontzia maneiatzeko gaitasuna duela egiaztatzen duen agiria, salbu eta hura nabigazioko rolean edo lizentzian sartuta badago.</li> <li>• Ontziaren aseguru-poliza, titulartasuna aldatzea eskatzen den pertsonaren izenean, indarrean eskabidea egiten den unean.</li> </ul>
Non izapidetzen da?	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ahal dela, eskabidea egiten den portuko kapitaintzan, jendeari arreta emateko ordutegian (<a href="#">kontsultatu helbideak</a>).</li> <li>• Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako bitartekoaren bidez.</li> </ul>
Betebehar ekonomikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskabide-izapideak ez dakar betebehar ekonomikorik.</li> </ul>
Prozesuaren edo ebazpenaren epea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurreikusitako epea: hilabete 1</li> <li>• Legezko epea: 3 hilabete</li> </ul>
Lege-esparrua	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2/2018 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena.</li> <li>• Amarratze Agindua, 2017ko urriaren 19koa.</li> <li>• 39/2015 Legea, Administrazio Prozedura Erkidearena.</li> <li>• Beste araudi batzuk.</li> </ul>
Oharrak	Titulartasun-aldaketa ontziaren titularkideen artekoa bada, amarralekuaren titular berriak titularkide gisa agertu beharko du baimendutako ontziari plaza esleitzeko aurkeztu zen amarralekuaren eskabidean, eta amarralekuaren titulartasuna aldatzeko eskabidea titularkide guztiek sinatuta egon beharko da plaza esleitu zen unean, edo haien oinordekoek, horietako bat hilda badago (kasu horretan, jaraunsleek herentziaren onarpen agiria aurkeztu beharko dute).

Onarpena	Onarpen- edo ukatze-ebazpena
Jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura	<ul style="list-style-type: none"><li>• Eskabidearen berrikuspena eta azterketa</li><li>• Ebazpena</li></ul>
Ondorengo izapideen laburpena	Ebazpena aldekoa bada, titular berriak 10 eguneko epean aurkeztu beharko ditu harremanetarako datuak (helbidea, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa) eta portuko tasak kobratzeko adierazitako kontu-zenbakiaren titulartasunari buruzko ziurtagiria edo banku-agiria.